



Federación Guipuzcoana de Balonmano  
Gipuzkoako Eskubaloia Federazioa  
Paseo Ansoa 5. of. 31  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tfn. 943 462534  
Fax. 943 473191

## KLUBAK ETA EPAILEEN BATZORDEA JAKINAREN GAINEAN EGON DAITEZEN

### Gaia: **PARTIDAKO AZKEN MINUTUAN BI MINUTURAKO KANPORATZEA**

**Kanporatzeari buruzko Joko Arauak aldatu direnez (2010eko uztailaren 1a), nola interpretatu dugun eta Diziplina Batzordean zer tratamendu emango zaion JAKINARAZTEN dizuegu:**

a) Aurreko denboraldien aldean, Joko Arauetan ez da aurreikusten emaitza estuaren aldagaia, soilik ekintza azken minutuan gertatzea aurreikusten da.

b) Joko Arauen argitalpen ofizialean (**1. argitalpena, 2010eko uztailaren 1a, Espainiako Eskubaloia Federazioa**) akats bat dago 51. orrian, lehenengo lerroan (**8:6;**) agertzen den puntu eta komaren lekuan koma soilik (**8:6,**) jarri behar da.

### Laburbilduta, hauek dira orain jasotzen diren ekintzak:

1) **8:5 Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, ez da **TXOSTEN IDATZIRIK** egingo, betiere partidako azken minutuan gertatzen ez bada.

**8:10:d Arauarekin lotura:** Azken minutuan izaten bada, non gainera galarazi egiten zaion talde aurkariari atera jaurtitzea edo gol aukera argi bat sortzea: **TXOSTEN IDATZIA** egingo litzateke, eta ondorioz automatikoki diziplina zigorra ekarriko luke, **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA**, hain zuzen ere.

2.) **8:6 Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, **TXOSTEN IDATZIA** egingo beti, eta gainera, kanporatzeko unean, epaileek taldearen arduraduna jakinaren gainean jarriko dute **TXOSTENA** egingo dela.

**8:10:d** Arauarekin lotura: Azken minutuan izaten bada, non gainera galarazi egiten zaion talde aurkariari atera jaurtitzea edo gol aukera argi bat sortzea, bi diziplina zigor mota egon daitezke: alde batetik, kanporatzea eragin duen ekintza zigortuko da (**8:6 araua**), eta bestetik, automatikoki ezarriko da **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA (8:10:d Araua)**.

3.) **8:9** Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero, ez da inoiz **TXOSTEN IDATZIRIK** egingo, partidako azken minutuan izanda ere.

4.) **8:10:c** Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero, **AZKEN MINUTUKO** kasutzat hartuko dira honakoak: jokalariek oztopatzea baloia lehenbailehen jokoan jartzea, gol aukera argi bat ekidite aldera (erdiko edo alboko sakea, jaurtiketa librea), hau da, 8:7c) arauan jasotako ekintzak. Beraz, epaileek **TXOSTEN IDATZIA** egingo dute, eta automatikoki ezarriko da **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA**.

Arau orokor moduan, **TXOSTEN IDATZIA** egiten den guztietan, ekintza gertatu bezalaxe jasoko da, urratutako araua aipatuko da, eta **azken minutuan izan bada berariaz adieraziko da**.